



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Osteguna
2008-01-24

VIURTEA 1344.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Etzi egingo dute dantza-soka herritarrek, eta horretarako hainbat entsegu egin dituzte. IMANOL GARCIA

BERRESKURATU BERRI DEN ASPALDIKO OHITURA SENDOTUZ

ANOETA Kalderero egunarekin bat eginez etzi egingo dute dantza-soka; 100 herritar inguruk hartzen dute parte ekimen honetan 4

Onartu dute eskola handitzeko aurreproiektua

IKAZTEGIETA Azken urteetan haurren kopurua handitu egin da; egun, 68 ikasle ditu eskolak 6

Bengoetxeak eta Barriolak aukeratu dituzte pilotak etziko binakakorako

LEITZA Atzo egin zuten aukeraketa; partida Labriten izango da, 17:00etan 6

Leitza, Berastegi eta Lizartza Inauterietan

AISIA Mozorroturik igaroko dute asteburua, festa giroan eta ekitaldiz beterik, hiru herrietan 7



I. TERRADILLOS

CHARO BERRA MARGOLARIA

«Zuhaitzaren bilakaera zoragarria da, bizitzarena bezala»

TOLOSA 'Zuhaitza: bizia eta kolorea' erakusketa ikusgai dago Aranburun, otsailaren 16ra arte 5

garenak x2 lortu ezazu hitzaren harpidedun berri bat izateko

eta **opari bana** jasoko duzue

aukeratu
gustukoen
duzun
oparia



BEZERO ARRETA ZENBAKIA:

902 820 201

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**

astegunetan: 08:30 - 20:30

larunbatetan: 09:00 - 13:00

Dinbi, danba, dunba! Zartagiak astintzen hasi dira denak

Aisia » Kalderero eguna ospatuko dute bihar eta etzi eskualdeko zenbait herritan; ijitoz jantzita aterako dira kalejiran.

liko direnak. Batzuek etzi ospatuko dituzte jaialdiak, eta beste batzuk, bihar.

Alkiza, Anoeta, Irura, Ibarra eta Zizurkilen, kalejiran aterako dira herrian barrena.

Tolosan, Inauterien iragarle

Inauterietarako bost egun besterik falta ez direnean ospatzen da Kalderero eguna. Hala, ordutik aurrera, giro berezia, festa giroa zabal-tzen da herriko kaleetan.

Ijitoz jantzita ateratzen da kale-
ra jendea eta goiz goizetik hasten
dira ekitaldiak. Goizean, buruhan-
di eta erraldoiak aterako dira Plaza
Zaharretik eta kalejiran ibiliko dira
Alde Zaharretik barrena. Bazka-
lostean berriz, Txantxo lehiaketa
egingo dute Zentro Sozio-kultura-
lean (jubilatuen egoitza), Aiz-
orratz elkartearen Haur jaialdia-
ren baitan, Leidor aretoa. Bertan,
Alberto magoa, Poxpolo eta Mo-
kolo pailazoak, marrazki eta mo-
zorro lehiaketa, animatzaileak
nahiz merienda izango dira. Beste-
tik, 19:00etan aterako da kaldere-
roen konpartsa kalejiran.



Ijitoz jantzita eta zartagiak eskuetan dituztela aterako dira bihar kaldereroak kalera. MADDI SOROA

» KALDERERO EGUNA

Alkiza

■ **Etzi, urtarrilak 26.** 17:30ean Santio Ermitatik abiatu ondoren plazara joango dira kaldereroak. Suaren inguruan kantuak, jolasak eta txokolatada izango dira. Ondoren, herriko kaxkoari bira emango diote. 20:30ean, afaria Elizagin. Egun honetarako azken entsegua bihar izango da, 19:00etatik 20:30era. Honetarako zartagina eta mailu txikia eramateko deia luzatzen dute antolatzaileek.

Anoeta eta Irura

■ **Bihar, urtarrilak 25.** 18:00etan Anoetako plazan bilduko dira, eta kalejiran joango dira Irurako plaza-
ra. Han, musika eta dantzeekin jarraitu ondoren, merienda izango

dute. Ekimena, Anoetako eta Iru-
rako Udalek, Loatzo musika esko-
larekin batera antolatu dute.

Tolosa

■ **Etzi, urtarrilak 26.** Hasteko, 10:30ean erraldoiak eta buruhan-
diak aterako dira kalejiran Plaza
Zaharretik. 15:00etan, Haurren
Txantxo lehiaketa Zentro Sozio-
kulturean. 16:00etan Aiz-orratz
elkarteko txaranga irtengo da el-
kartetik bertatik. 16:30ean, elkarte
honek antolatutako Haur jaialdia
izango da Leidor antzokian. Jaial-
dian Txantxo lehiaketako irabazle-
ren berri emango da. 19:00etan,
Kaldereroen konpartsa kalejiran
aterako da Plaza Zaharretik.
Amaitzeko, 23:30etan hasita, In-

cansables txaranga kalez-kale ibi-
liko da.

Ibarra

■ **Bihar, urtarrilak 25.** Auspoa kul-
tur elkarteak, Loatzo musika esko-
lak eta Uzturpe Ikastolak antolatu-
ta, kalderero eguna ospatuko dute
Ibarran. Hemen 18:00etan, plaza-
tik abiatuta kalejira egingo dute
herriko barrena.

Zizurkil

■ **Bihar, urtarrilak 25.** Pedro Mari
Otaño ikastetxeak 15:15ean
abiatuko dira eskolatik kalejiran,
ijitoz jantzita. Hemendik plazara
joando dira. Honen ostean Joxe
Arregi plazara iristean, merienda
egingo dute.

ESTI EZEIZA

Inauteriak gain-gainean direla iraga-
rtzeko hor etortzen zaizkigu ur-
tero kaldereroak, beraien zartagi
eta kazolak astinduz. Ezagune-
nak Tolosakoak badira ere, eskual-
deko beste zenbait herritan ere ospa-
tzen dute kalderero eguna. Horren
adibide dira Ibarra, Anoeta, Irura
eta Alkiza.

Larunbateko ekitaldia presta-
tzeko asmoz entsegu ugari egin di-
tuzte kaldereroek. Zalaparta atera-
zea erraza dela badirudi ere, behar
bezala ateratzea asko kostatzen
da. Jaialdi honetan, haurrak
izango dira protagonista nagusiak.
Herri gehienetan beraiak izango
baitira ijitoz jantzi eta kalejiran ibi-

L Laburrak

Karroza eta konpartsa lehiaketan izen-ematea

TOLOSA » Inauteriko karroza eta
konpartsen lehiaketan izena emate-
ko epea bihar amaituko da. Intere-
sa dutenek Aranburu Jauregian
egin daiteke goizez nahiz arratsal-
dez.

'American Gangster' eta 'El arca de Noe' filmak ikusgai

TOLOSA » *American Gangster* eta *El
arca de Noe* filmak izango dira ikus-
gai asteburuan Leidor aretoa. *El
arca de Noe* igandean, eta *Ameri-
can Gangster* bihartik astelehenera
izango da.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako per-
sona bat behar da. 656 41 68 08.

■ **Inkesta.** Nola prestatzen
duzu Inauterietako mozo-
rroa? Etexeko trapu zaharrak erabi-
tzen al dituzu edo dena erosi egi-
ten duzu? Hala, mozorrotzen ez
zarenetakoa zara. Hala, oihala
erosi eta josi egiten dute jantzia.
www.tolosaldekohitza.info

S Soka motzean

«Norberari beti iruditzen zaio gehiago moztu diotela»

IMANOL IDARRETA >

Ile-apaintzailea

ERREDAKZIOA

Hamabi urte daramatza Imanol Idarretak (Tolosa, 1972) ile-
apaintzaile lanetan. Tolosarren joeretz hitz egin du Area
2000ko nagusiak.

Zein da modan dagoen orrazkera?

Nesketan, adats ertaina eta kolore iluna. Mutiletan berriz, ile
ez hain motza.

Bezeroak edo zuk aukeratzen du orrazkera?

Jendeari erakutsi diogu ile-apaintzaileen esku uzten orraz-
kera. Hala ere, beraien iritzia kontuan hartzen dugu.

Jendeari gustatzen al zaizkio aldaketak?

Bai, aldatzea gustuko dute bezeroek. Konfidantza dute gudan.

Egia al da ileapaindegiak txutxumutxuen biltoki direla?

Bai, emakume asko etortzen dira, eta aste guztian esan ez di-
tuztenak kontaktzen dituzte.

Ile-apaintzaileek guraiziak hartzen dituzuenen...

Norberari beti iruditzen zaio gehiago moztu diotela.

Adats luzea edo motza?

Neskentzat motza nahiago dut, eta mutilentzat, pixka bat luze-
agoa.

Gauza arraroak egiten uzten al dizute?

Kontuan hartu behar duzu zein den bezeroa. Muga zuk bilatu
behar duzu, honen perfila zein den ikusiz.

Zein ezaugarri izan behar ditu ile-apaintzaile onak?

Sormena, abilezia eta bezeroa ulertzea.



L. TERRADILLOS



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

G Gutunak

AHT gelditu dezagun!

Euskal Herriko gehiengo sozial eta sindikalak behin baino gehiagotan erakutsi du Abiadura Handiko Trenaren aurkako jarrera. Horren erakusle dira hainbat herritar burutu diren herri galdeketez emaitzak eta Euskal Herri luze zabalean burutu diren mobilizazio eta salaketak.

Hala ere, azpiegitura erraldoi honen arduradunek entzungor egiten diote herri eskaerari, eta inposizioaren bidean jarraitzen dute. Horren adibide dira Garraio sailburua den Lopez De Gereñuren adierazpenak, EAEn gobernu espainiarreko ordezkarari den Paulino Luesmak herri galdeketeen aurka eginiko mehatxuak eta AHTren obren isileko hedapena.

AHTren atzean interes ekonomiko izugarriak ezkututzen dira. EAJ, UPN eta PSOEn lotutako enpresa handiek herri sektore eta langileen poltsikoetatik aterako diren 9.000.000.000 eurokin beren biziko negozioa egin nahi dute. Are gehiago, AHT herri honetan EAJ, UPN eta PSOEk lege, dekretu eta erreformen bidez inposatu nahi duten eredu ekonomikoa eta soziala indartzera dator:

kapitalismo basatia, pribatizazio eta deslokalizazioak, lan prekarietatea, espekulazioa, gastu sozialaren jaitsiera,... gutxi batzuei sekulako irabaziak dakartzkiete gehiengoaren bizi baldintzak kas-kartzuz.

AHTk beste hainbat interes politikoko ere ezkututzen ditu. Izan ere, 9.000.000.000 eurok askorako ematen dute, bai eta EAJ eta UPNren sektore atzerakoienak saritzeko ere, eta, bide batez, egungo marko juridikoa iraunarazteko. Egungo estatusak, AHT proiektuak erakusten duen bezala, euskal herritarrei gure orainaz eta geroaz erabakitzeko ahalmena ukatzen digu; eta, noski, gure garraio eredu, lurralde eta jendartea antolatze eskubidea.

AHT dugu Euskal Herriak pairatzen duen burujabetza gabezia eta menpekotasun egoeraren isla argiena. Proiektu honen inguruko erabaki estrategiko guztiak Madrilen eta Parisen hartu dira, euskal herritarren bizkar.

Gainera, AHTren aurkako mugimenduak salatu duen bezala, proiektu honen inguruko erabaki inolako informazio eta parte-hartzeko aukerarik gabe garatu dira. Horrek argi erakusten du Ibarretxe jaunaren hipokresia,

izan ere, egunero ari gaitu demokrazia eta herritarren parte-hartzeari buruzko adierazpenekin aspertzten.

Gauzak horrela, AHT inposaketa ekintza da, aldaketa politiko eta sozialaren beharra irudikatzen duena. Burujabetza ezak Euskal Herria AHTren eredura kondentatzen du. Langile eta herri sektoreen etorkizuna baldintzatzen du eta, ondorioz, Euskal Herriarena.

Horregatik guztiatik, langile eta herri sektoreek indarrak bildu behar ditugu eta AHT gelditu. AHT gelditzeaz gain, aldaketa sozial eta politikoko alde egin behar dugu: marko demokratikoa lortzeari begira eta AHTren aurka doan eredu ekonomikoa eta sozial baten alde.

Indarrak biltzeko eta inposaketa hau gelditzeko aukera paregabea dugu. Horregatik deia luzatzen dugu AHT gelditzeko bidean antolaturiko ekimenetan eta bereziki urtarrilaren 26an AHT Gelditu! Elkarlanak Tolosan antolatu duen mobilizazioan parte hartze- ra. Soilik herriaren borroka lortuko baitugu AHT eta beste proiektu txikitzaileak gelditzea.

Jokin Artola eta Eider Imaz.
Tolosaldeko ezker abertzalea.

Irakurzaletasuna sustatzeko tailerra antolatu dute

Tolosa » Bularretik mintzora' ekimenaren baitan izango da haurrak dituzten gurasoei zuzendua, Errotan.

ERREDAKZIOA

Bularretik mintzora kanpainaren baitan, haurren irakurzaletasuna sustatzeko tailerra antolatu duten

gurasoentzat Tolosako Haur Liburutegian. Bertan izena emateko, Haur Liburutegiaren ordutegia 17:00etatik 20:00etara bitartekoa izango da.

Tailerra 0 eta 6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendurikoa da. Pello Añorga izango dute irakasle bezala, eta otsailaren 18an, 19an, 25an eta 26an izango da. Arratsaldez izango dira tailerrak, 15:00etatik 17:00etara, eta

haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute. 20 lagunentzako da tailerra, eta doan izango da.

Landuko direnak

Ondorengoak izango dira landuko dituzten gaiak: Elkar entzuteko espazioa nolagaita; literatur egitura- en erabilpena errealizatu; kontakizunak: irudi liburuak, amandre ipuinak; irakurketa ozena; sehaska kantak, hitz jolasak, poematxoak,...

Z Zurea da hitza 

Argazki zahar bat aurkitu dut

HERRITAR BAT

Laskorain ikastolak Eguberrietan zehar antolaturiko Merkatu Txikian liburu bat erosi nuen, eta irakurtzen hasi nintzenean konturatu nintzen barrualdean argazki zahar bat zuela gordeta. Argazkiaren jabeak mesedez dei dezala TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko telefono zenbakira: 943 65 56 95. Azalpenak emango dira argazkia bueltatzeko.



Hau da liburuan aurkitu duten argazkia. HITZA

TXOTX

Urbitarre

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 **Ataun**

Laja

Arkolla auzoa, 33 (www.laiaerretetgia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@laiaerretetgia.com) **Hondarribi**

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 **Lesaka**

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 **Irun**

Aduriz

Arandeder bidea, 28. Iturrioz auzoa
Tel.: 943 494 353 **Oiarzun**

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523 905 **Errenteria**

Txopinondo

Sagarnotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 **Azkaine**

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 **Jatsu**

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 **Errenteria**

Txinurri Iturri

Mendari auzoa (www.txinurri.com - txinurri@txinurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 **Itziar**

Begiristain

Iturrioz baserria
Tel.: 943 652 837 **Ikaztegia**

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) **Tolosa**

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 **Asteasu**

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) **Aduna**

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 **Leaburu**

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 **Tolosa**

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 **Leitza**

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 **Urnieta**

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 **Hernani**

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 **Hernani**

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra
Tel.: 943 556 637 **Astigarraga**

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 **Astigarraga**

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 **Astigarraga**

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 **Astigarraga**

IMANOL GARCIA

Aspaldiko ohitura da dantza-soka egitearena Anoetan. Azken urteotan berreskuratu da ohitura eta idatzi gabeko lege horrek dioen bezala, etzi aterako dira, Kaldereroen egunarekin bat eginez. Aurten ere ehun lagun inguru ariko dira ekitaldian parte hartzen: dantzariak, musikariak, traktore gidariak, sukaldariak, talogileak eta erromeria egin-go dutenak. Urtero sendotzen doan ekitaldia da dantza-soka.

Plazatik goizean goiz aterako dira. Beste urteetan furgonetatan eta traktoreetan abiatzen baziren baserrietara, aurten dantzari eta musikariak sei traktoreren gainean joango dira. Talde bat Ergoien bailarara joango da eta bestea Goi bailarara. Bailara bakoitzeko hainbat baserrietan egiten dute dantza saioa.

Herrira jaistean, eguerdi partean, neskek egingo dute dantza soka. Ondoren bazkariaren txanda izango da, ohi bezala Kuku elkartean eta jateko babarrunak. Arratsaldeko dantza saioan mutilak izango dira protagonista. Azkenik, ekitaldiaren amaieran dantzatze-ko erromeria izango da eta sabela gehiago betetzeko taloak.

Aurreskulari eta atzeskulariak

Dantzarien artean badira ardua handiagoa izango dutenak: aurreskularia eta atzeskularia. Nesken aldetik Estibaliz Lasa (1980) izango da aurreskularia eta Bakarne Garmendia (1969) atzeskularia, eta mutilen aldetik, Manex Munduate (1984) da aurreskularia eta Aitor Urkola (1994) atzeskularia. Laurak dira anoetarrek. Dantzari guztiek egiten dituzten axeri dantzaz, arin-arinaz eta fandangoz gain, hauek aurreskua eta desafioa ere dantzatu behar dute. Dantza horiek plazan egiten dituzte.

Estibaliz Lasak iaz hartu zuen erabakia aurten aurreskulari bezala parte hartzeko. «Aurrekoan, bazkaltzen ari ginela edo komentatu zuten ea zeinek hartu behar zuen parte hurrengo urtean eta nik esan nuen gustatuko litzaidakeela parte hartzea eta horrela izan zen». Prestaketak Eguberrien aurretik hasi zituzten eta gero asteen behin aritu dira entseguak egiten. «Lehenengo entsegu orokorrean ustez ondo bagenekien, baina urduritasunengatik edo nahastu egiten nintzen. Baina larunbatean uste dut ondo aterako dela».

Bakarne Garmendiak azaltzen duenez, «niri pixkabat kostatu zait dantzak ikastea, baina gero ikusten da egin beharreko pausoak beraien artean antzekoak direla». Dantza-sokan parte hartzen hasi zen taloak egiten. «Gero dantzariak inbidia ematen zidaten eta dantzan ateratzea erabaki nuen». Lehengo urtean baserri baserri ibili zen eta «primeran pasatu nuen».

Manex Munduate iaz hartu zuen parte lehenengo aldiz eta aurtengorako aurreskulari bezala parte hartzeko proposatu zioten.



Giro alaietan egiten dituzte dantza-sokan parte hartuko dutenek entseguak. I. GARCIA

Ohiturari jarraituz, etzi, Kaldereroen egunean egingo dute anoetarrek dantza-soka ekitaldia. Ehun lagun inguruk parte hartuko dute festaren arlo guztietan. Orain urte gutxi batzuk berreskuratutako ohitura sendotzen doa.

Eskutik dantzan



Aurreskua dantzatu beharko dute larunbatean aurreskulari eta atzeskulariak. I. GARCIA

Dantza ikastarorik hartu gabea da, baina erromerietan eta noizean behin aritutakoa da. «Hasieran dantzak zaila ematen du, baina gero kontua da erritmoa eramatea txistulariekin bat joateko», azalretatik gazteenak larunbateko ardurari buruz galdetzean.

Guztia ondo prestatzeko azken entseguak egingo eta parte-hartzaileei azkeneko xehetasunak emateko, bihar elkartuko dira dantzari eta musikariak, 19:00etan, ohi bezala, Edukako pabilioietan.

zuen. Atzeskulari izateko proposatu ziotenean hasieran ezezkoa eman zuen, baina gero animatu zen parte hartzera. «Hasieran pixka bat gaizki, pausoak jakin arte, baina bestela ondo», dio lauretatik gazteenak larunbateko ardurari buruz galdetzean.

Guztia ondo prestatzeko azken entseguak egingo eta parte-hartzaileei azkeneko xehetasunak emateko, bihar elkartuko dira dantzari eta musikariak, 19:00etan, ohi bezala, Edukako pabilioietan.

» EGITARAUA

Kaldereroen egunean egiten dute dantza-soka Anoetan. Aurtengorako hilaren 26an egingo dute, hau da, etzi, larunbata.

- **08:45.** Plazan elkartuko dira dantzari eta musikariak.
 - **09:00.** Baserrietara abiatuko dira.
 - **12:30.** Nesken dantza plazan.
 - **14:00.** Bazkaria Kuku elkartean.
 - **17:00.** Mutilen dantza plazan.
- Ondoren, erromeria frontoian triptilari eta talogileekin.

Baztanera irteera antolatu du Sagain Mendi Taldeak iganderako

Asteasu » Bi ibilbide egin ahal izango dira: bata zailtasun ertainekoa eta bestea familia guztiarentzat aproposa.

ERREDAKZIOA

Asteasuko Sagain Mendi Taldeak irteera antolatu du Baztanera datorren iganderako. Bi aukera izango dira. alde batetik Aritzakun inguruak ezagutzeko ibilaldia, eta bestetik Xorroxin urjauzira joateko ibilaldia.

Aritzakun inguruak ikusteko ibilaldia zailtasun ertainekoa da eta lau eta lau ordu eta erdi inguruko denbora aurreikusten da. Xorroxin urjauzira joateko ibilaldia zailtasun urrikoa da eta familia guztiarentzat aproposa. Bi ordu eta bi ordu eta erdiko denbora aurreikusten da ibilaldia egiteko.

Autobusean joango dira eta irteera udaletxe aurrean egingo da, 08:00etan. Itzulera arratsaldean izango da, baina oraindik ez dute ordua zehaztu. 12 urtetik beherako euro bat ordaindu beharko dute eta 12 urtetik gorakoek bost euro. Izena kiroldegian eman behar da, eta gaur da azken eguna horretarako.

Ur eta zaborren tasak ez ordaintzeko edo gutxitzeko aukera

Zizurkil » Udalak jakinarazi duenez, interesatuei eskaerak egiteko epea otsailaren 15ean amaituko zaie.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak jakinarazi du ur eta zaborren tasen ez ordaintzea edo gutxitzeko eskaerak aurkezteko epea ireki dela. Epea datorren otsailaren 15ean bukatuko da.

Interesatuek eskaera egitekoan ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute: familiako kide guztien NANren fotokopia; errolda eta elkarbizitze ziurtagiria; familiako kide guztien diru sarreren ziurtagiria, hau da, errenta aitortpenaren fotokopia edo egitea behartua ez dagoenaren agiria; langabezi txartela eta INEMek jasotzen den laguntzaren agiria; eta Foru Haziendak emandako ondandun agiria. Informazio gehiago nahi duenak udal bulegoetan eta 943 69 10 12 edo 943 69 30 66 zenbakietan jaso dezake.

«Bizitzarena bezala zuhaitzaren bilakaera zoragarria da»

CHARO BERRA » Margolaria

Erakusketa » Charo Berraren 'Zuhaitza: bizia eta kolorea' erakusketa dago ikusgai Aranburun otsailaren 16ra arte.

INIGO TERRADILLOS

Otsailaren 16ra arte daude ikusgai Aranburu jauregian Charo Berraren (Donostia, 1946) margolanak, *Zuhaitza: bizia eta kolorea* izenburupean. Bost urte zituela etorri zen Tolosara bizitzera, eta ordutik, hau da, gaztetxoa zenetik gustatu izan zaio pintatzea. Azken 20 urteetan aritu da artista bezala lanean. Erakusketa honen eta bere pintatzekeo zaletasunaren ingurukoak azaldu ditu.

Zuhaitzari begiratzea norbere bizitzari begiratzea bezala dela diozu.

Bai, izan ere, bizitzarena bezala, zuhaitzaren bilakaera zoragarria da. Berde dagoenean, gaztea da eta arnasa sakon harrarazten dizu; udazkeneko itxura hartzean, erdi bidean dago, esperientzia eta eskarmentuz betea, eta koloretsu. Biluzik geratzean, berri, xarma berezia du. Jende askorentzat zahartzarora tristea da, baina nik ez dut uste horrela denik.

Zergatik zuhaitzez beteriko erakusketa?

Natura asko gustatzen zait. Zuhaitzak eta bere inguruneari begiratzea ere liluragarria da; goroldioa, garoa, bere adarren artean argi izpien bila dabilen lore niumiñoak, adar puskek, belar tartean ageri diren perretxikoak... den-denak ikustea, mirestea eta errespetatzea atsegin dut.

Deskribaiezaguzu erakusketa.

Sartzen zarenean etxean egongo bazina bezala da, ontzietan landareak agertzen diren koadroak,

leihotik zuhaitza ikusten denekoa. Bigarren gela mendirako bidean egongo bazina bezala da, bidean zehar ikusten direnak irudikatzen dituzten koadroekin, eta azkenekoan koloreta igarotzen gara; udazkeneko koadroak ageri dira.

Kolorez beteriko lanak dira.

Beti gustatu izan zaizkit koloreak, inpresionismoa asko gustatzen zait. Pentsatzen dudana adierazten dut era azkarrean, hori da nire modua.

Kolore biziak eta kolore tristeagoak. Zeren arabera izaten da hori?

Agian norberaren aldarrearen arabera izaten da koloreena, eta pentsa daiteke triste bazaude kolore tristeak erabiltzeko joera dagoela, eta alderantziz. Nire kasuan, ordea, ez da horrela; triste nagoenean kolore biziagoak erabiltzen ditut.

Eta ideiak erraz sortzen al zaizkizu?

Gauzak ikusten noan arabera ideia asko pilatzen joaten naiz, urte osoa pintatzen igarotzeko adina ideia batzen ditut. Beti nago ikusten eta arakatzeko, eta hainbeste gauzak ikusita, ondo gordetzen ditut buruan.

Hurrengo lana zeri buruzkoa egingo duzu?

Ziurrenik urari buruzkoa izango da, eta hor geza eta gazia bereiziko ditudala uste dut.

Jendeak zer esaten dizu zure lanet buruz?

Jendeari asko gustatzen zaizkio. Batez ere, nola pintatzen dudana ikustea gustatzen zaie. Eta niri ere gustatzen zait hori. Donostian, adibidez, askotan izan naiz kalean pintatzen jende askoren aurrean, eta nik hori atsegin dut. Beste artista askori, ordea, ez zaie gustatzen jendeak ikustea nola egiten duten lan.



I. TERRADILLOS

Eskertza

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hiltzeriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95

FERMIN UZKUDUN



Orain egun gutxi hil den Errezilgo Aistixo baserriko Fermin Uzkudunen hileta elizkizunean egon ziren lagun guztiei eta doluminak adierazi zizkiguten guztiei eskerrik beroena eman nahi diegu, bere emaztearen, seme-alabaren, suhi-errainen eta biloben partetik. Mila esker.

ERREZIL
2008ko urtarrilaren
24a



Ikaztegieta ikastetxea txikia gelditu da: ikasmaila batzuk etxe prefabrikatueta jasotzen dituzte eskolak. N. URBIZU

Eskola handitzeko beharra ikusita, aurreproiektua onartu du Eusko Jaurlaritzak

Ikaztegieta » Azken urteetan haur gehiago daude, eta oraingo eraikina handituko dute oraindik zehaztu ez duten epean.

NEREA URBIZU

Ikaztegieta asko hazi da azken urteetan proportzioan. 450 biztanle inguruko herria izanik, gaur egun 68 ikasle ditu ikastetxeak, eta joera, igotzearena da.

Honen aurrean, herriak eskola berri baten beharra baino, eraikinaren handitzearen beharra ikusi zuen duela jadanik urte batzuk. Udaleko ordezkariak esan bezala, «gurasoen gehiengoak herri gunean mantentzea nahi zuen ikastetxea, gaur egungo lekuan, hain zuten». Baina, inguruan ez dago leku gehiegirik ere; hala ere, guraso taldea mugitzen hasi zen, eta duela urte eta erdi inguru delegaritzara jo zuen eta bideragarritasun plan bat eskatu zuen: beharrak ezagutu zituzten eta bertan zeuden aukerak ere ikusi zituzten.

Kasua ikusi eta aztertu ondoren, posiblea zela ikusi zuten. Bertakoek aurreproiektu bat aurkeztu zuten baina «irakasleak eta guraso

taldea ez zeuden ados, hiru urtetan berriz arazo berdina izango zelako, hau da; txikia geldituko zela».

Aurreproiektuan moldaketak

Delegaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak irizpide orokor batzuk dituzte, ikastetxe guztietan aplikatzekoak, baina Ikaztegieta arazo batzuekin: «Ez zegoen lursail gehiegirik, esaterako patio bat egiteko, baina hurrengo bilera batean adierazi genuen, esaterako Donostiako ikastetxe

Bigarren aurreproiektuari moldaketak gehitu dizkiete eta hau jarriko dute martxan

bateko beharrak eta landa eremu-ko ikastetxe batekoak ez direla berdinak». Honi gehitu behar zaio duela urtebete inguru bertan duden plazako eremua, aterpea eta abar.

Delegaritzak arrazoi hauek ulertu zituen; orduan bigarren aurreproiektu bat aurkeztu zuten. Honekin ados zeuden ia irakasleak, «moldaketa batzuk eginda».

Hirugarren bilera bat egin zuten honen aurrean hainbat ordezkari-

» URTEZ URTE

- **2003-2004.** 45 ikasle.
- **2004-05.** 46 ikasle.
- **2005-06.** 50 ikasle.
- **2006-07.** 56 ikasle.
- **2007-08.** 68 ikasle. Bost urtetan 13 ikasle gehiago.

rekin eta aldaketa hauek aintzat hartu zituzten.

Bigarren aurreproiektu honi moldaketa hauek gehitu dizkiete eta martxan dago. Eraikina handitu egingo dute, hortaz. Handitze honetan ikastetxeko atzeko lursaila guztiz hartuko luke, eta bi altxerako eraikina egingo dute. Beraz, orain dagoenak atzealdean izango lituzte gela gehiago. «Eremuz orain hartzen duena gehi berdegu- ne bat izango da».

Orain Udalak lursail hauen aldaketak egin beharko ditu, eta bitartean zain egongo dira dena martxan jartzeko, «baina delegaritzan onartu dute».

Luze joango den proiektua

Eperik ez dakite eta ez zaie eman: «Guk eskatzen jarraitzen dugu. Bertatik lehentasuna eman nahi diotela diote, baina beste kasu batzuk ere egon daitezke aurretik, behar gehiagorekin».

Mementoz, eta seguruenik urte batzuetan ere obra garaian, ikasle batzuk etxe aurrefabrikatueta jaso beharko dituzte klaseak, toki faltan baitaude. Beste alternatibatan ere pentsatu dute Ikaztegieta-ko Udalekoek eta irakasleek, eskola inguruko lokaletan pentsatuz.

Bengoetxeak eta Barriolak pilotak aukeratu dituzte etziko binakako partidarako

Pilota » Oinatz Bengoetxeak mina zuen behatzean probak egin ditu eta jokatzeko dagoela adierazi du leitzarrek.

IMANOL GARCIA

Etzi Binakako Pilota Txapelketa jokatu dute Bengoetxea VI.ak eta Barriolak eta atzo egin zuten pilotak aukeraketa Labriten, bakoitzak bere bikotearekin. Honekin batera, Bengoetxea VI.ak hautsita duen behatzak nola erantzuten duen ikusteko proba egin zuen eta «nahiko ongi» aterazi zela adierazi du leitzarrek. Beraz, larunbatean partida jokatzeko izango dela ziurra da.

Oinatz Bengoetxeak eta Patxi Ruizek pilotak hautatzeko arazorik ez zuten izan. Gonzalez-Barriolak 105,3-104,6 eta 105,4 gramokoak aukeratu dituzte larunbaterako. Bengoetxea VI.a-Patxi Ruizek, berriz, 105-104,9 eta 105,4 gramokoak.

Bengoetxeak azaldu duenez, «gureak pilota nahiko onak dira eta gustura gaude. Beraienak asko joaten dira, baina noski, bakoitzak bere aukeraketa egin du bere jokoa egiteko».

Final-laurdeneko partida

Final-laurden hau etzi Iruñeko Labrit pilotalekuan izango da 17:00etatik aurrera. Aurretik Chafee-Peñagarikano eta Leiza-Rai ariko dira. Txartelak oraindik salgai daude.

Bestalde, Binakako Promozioko BBK Txapelketako bihar koan Saralegi-Iza eta Arretxe II.a-Eskudero ariko dira, baina Valladoliden (Espainia).

Laburrak

Eskiatzera joateko aukera otsailaren 10ean (igandea)

ALTZO » Altzoko Udalak otsailaren 10ean (igandea) Candanchura (Aragoi, Espainia) eskiatzera joateko aukera zabaldu du. Hiru euro jarri behar da joan-etorria ordaintzeko, eta bazkaria eta eskien alokairua, forfait-a eta bestelakoak norberaren kontu izango dira. Hala ere, norberak elurretan aritzeko bere materiala ere eraman dezake. Autobusa ateratzeko gutxienez 15 lagun behar dira. 06:30ean abiatuko dira plazatik, eta 20:00ak aldera bueltatuko lirateke. Izena emateko azken eguna otsailaren bata izango da, udaltxean, edo telefonoz: 943 65 24 13. Altzoko Udalak jendea animatu nahi du eskiatzera joateko.

Erniope pilota eskolak 49 puntu eskuratu ditu Berria Pilota Txapelketan

Pilota » Otsailaren 16an Tolosan Aurrera-Saiazen aurka ariko dira, honela bigarren kanporaketan izanik.

ERREDAKZIOA

Alkizako Erniope pilota eskolak Berria Txapelketan aurrera egin du joan den larunbatean Mallabiaren aurka irabazi ondoren: kadeteek eta nagusiek lortu zuten garai-pena.

Kadeteen eta nagusien partidak irabazi zituzten erraz xamar, eta gazteena, berriz, galduta egin zuten 5 tanto bakarririk eginez. Kadeteek 22-3 irabazi zuten, eta nagusiek, aldiz, 22-10. Adituen esanetan, «ez zen nagusien partida beste munduko ezer izan, baina bai ordea, kadeteena: oso ondo aritu ziren gipuzkoarrak».

Guztira 49 puntu egin dituzte, eta Mallabiakoek, berriz, 35. Otsailaren 16an Tolosako Beotibar pilotalekuan Aurrera-Saiazen aurka ariko dira Alkizako hiru bikoteak. Asteburuan aritu diren pilotariak hauek dira: Urbieta I.a-Zinkunegi kadeteak, Urbieta I.a-Urruzola gazteak eta Axpe-Lopetegi nagusiak.

Amezketako Zazpi-Itturrikoak martxoaren lehen ariko dira oraindik zehaztu ez den pilota eskolaren aurka, baina Igorre edo Lemoa izango da aurkaria eta otsailaren 2an jokatu dute partida hau Lemoako pilotalekuan.

Hasieratik argi

Hasiera batetik argi xamar zegoen zein pasa behar zen aurrera: Erniope eta Huarte, hauek ziren favoritoak.

Otaola Gipuzkoako PPrentzerrandaburua senaturako

LIZARTZA » Regina Otaola Lizartzako alkatea Gipuzkoako PPrentzerrandaburua izango da senaturako. Maria Jose Usandizaga, berriz, PPrent lehendakaria Gipuzkoan Kongresurako bigarren izango da zerrandaburua. Hala eman du ezagutzera PPK. Otaola Senatuan egoteko lehen postuan izango da, beraz. Zerranda honetan Julia Tercero Azpeitiako zinegotzia eta Gonzalo Zaldo Beasaingo zinegotzi ohia ere izango dira. 2004ko hauteskunde orokorretan PPK Gipuzkoan 56.904 bozka jaso zituen, %15, gutxi gorabehera. Honela diputatu bat eskuratu zuen, baina ez zuen, ordea, Senatuan aukerik lortu.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Aurten oraingo ez da elurrik aurreikusten Leitzako Ithoteetarako. Umorea berriz ziurtatua egongo da. ESTI EZBIZA

Leitzan, Berastegin eta Lizartzan Ihote eta Inauteriak ospatuko dituzte

Inauteriak » Lizartzan bigarren asteburuari ekingo diote bihar; Berastegin hasiera ospatuko dute.

ASIER IMAZ

Lizartzako Inauteriak bigarren asteburuari helduko diote bihartik aurrera. Berastegin eta Leitzan berriz, 2008ko Inaute eta Ithoteei hasiera emango diete bihar eta etzi. Amaiera egunei dagokionez, Be-

rastegikoak izango dira laburrenak, bihar hasi eta etzi bukatuko baitira. Lizartzan urtarrilaren 27an, igandean, erreko dute ijitoa eta Leitzan ilbeltzaren 30ean, asteazkenean agurtuko dituzte 2008ko Ithoteak.

Berastegi eta Lizartza

Berastegin eskolako umeak hasiko dira jaia ospatzen, mozorroturik eta musikaz lagunduta. Horretaz gain, 16:00etan eskolaren atarian zezena edukiko dute zain. Musika eta jolas artean ekingo diote Inau-

teriei bihar herriko txikienek. Etzi berriz dantza emanaldia eta txokolatadaren ondoren, gazte eta helduen txanda izango da, 18:30ean poteoa hasiko direlarik 21:00etan Herri Afaria egiteko.

Lizartzan bihartik aurrera puske-biltze, mozorro eta bazkari zein afarien inguruan ibiliko dira dantzan. Berastegin bezala, bihar eskolako haurrek izango dira protagonistak eta jaia goiz amaituko da, hurrengo Inauteri eguna luzea eta gogorra izango baita. Goizean goiz elkartuko dira kalejiran, ondoren

berriz, 07:30ean puske-biltzea egingo dute dantzariak eta txantxoek elkarrekin ospeletik barrena. Igandean besteak beste Agintariak mezetara joango dira eta ondoren Inaute Bazkaria egingo dute herriarrek. 20:30ean berriz ijitoa erreko dute herriko plazan.

Atsauretze gongibetea Leitzan

Ihoteen lehen eguna etzi ospatuko dute Leitzan. Antolatzaileek herriarrei eta kanpotik hurbilduko diren bisitariei mezu bat zabaldu nahi izan die lehenik, «atsauretzea

animatzen ditugu». Horretaz gain, egun hauetan herrira oinez joatea eskatu dute, «kotxeek trabarik ez egiteko, igandean bereziki».

Ithoteak bazkariarekin hasiko dituzte Leitzan etzi. 16:00etan berriz eska egingo dute herriko etxeetan. Honen harira, antolatzailleek ohar pare bat aipatu nahi izan dituzte: «etzi arratsaldeko 16:00etan herrian eska ere egingen dela gogoratu herriarrei, baserrietara joatea oso gustuko izaten dugu, hori jakina da, baina lehendabizi herrikoak egin behar da, beraz, animatu eta azaldu».

Baserrietara eska egitera ilbeltzaren 28an eta 29an joango dira, 09:00a inguruan. Ekitaldi hauetan errespetuz jokatu eta ibili behar dela gogorarazi dute; «aipatzekoa da eska goizean hasten dela eta ez eguerdian Basakabi aldetik».

Gaztetxean ekitaldi ugari

Ihoteetan herri guztian zehar antolatuta dituzte ekitaldiak, Karrapen adibidez gauero kontzertuak eta hauen atsedendian zein Incansables txaranga egongo da. Amazabal pilotalekuan ere ekitaldi ezberdin asko egongo dira, haurrentzako gune bilakatuko delarik, baina baita ere herri kirol erakusleho. Bertan jokatuko baita Urrezko Aizkoraren norgehiagoka berri bat etzi 19:00etan.

Atakabeltza Gaztetxean ekitaldi ugari egingo dira etzitik ilbeltzaren 30era bitarte. Ihoteen lehen egunean, etzi, Rumba kontzertua egongo da A Rebote taldearen eskutik. Gauean berriz, Txupito Pesta egingo dute, 60., 70. eta 80. hamarkadako musikaz lagundurik. Ilbeltzaren 29an, asteartean, 02:00ak inguruan Karaokea antolatuko dute, Atsaute Lehiaketarekin batera.

» EGITARAUAK

BERASTEGI

Urtarrilak 25, bihar

- **14:30.** Eskolako umeek herritik buelta egingo dute, mozorrotuta eta musikaz lagundurik.
- **16:00.** Eskola atarian zezena egongo da, musikaz alaiturik.

Urtarrilak 26, etzi

- **17:00.** Herriko umeen dantza emanaldia.
- **Ondoren.** Txokolatada Guraso Elkartearen eskutik.
- **18:30.** Poteoa.
- **21:00.** Afaria.

LEITZA

Ilbeltzak 26, etzi

- **14:00.** Eskalarin bazkaria Aurrean dohan.
- **16:00.** Eska herriko etxeetan. Dultzaineroak, txistulariak, atxauratuak,...
- **19:00.** Urrezko aizkora txapelketako lehia Amazabal pilotalekuan.
- **20:00.** Rumba kontzertua A Rebote taldearen eskutik Atakabeltza Gaztetxean.
- **Gauean.** Atakabeltza Gaztetxe-

an Txupito Pesta eta 60., 70. eta 80. hamarkadako musika.

Ilbeltzak 27, igandea

- **12:00.** Txu Txu trenna herrian barna.
- **14:30.** Atsauren herri bazkaria.
- **16:00.** Txu Txu trenna herrian barna.
- **18:00.** Incansables txarangaekin Atsauren kalejira eskolatatik.
- **19:00.** Laiotz taldea Karrapen.
- **23:30.** Laiotz taldea Karrapen.
- **Ondoren.** Incansables txaranga.

Ilbeltzak 28, astelehena

- **09:00.** Baserrietako eska: Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Errekara puske biltzea, herriko txistulari eta Incansables txarangaekin.
- **16:00.** Puzgarriak egongo dira Leitzako Amazabal pilotalekuan.
- **19:00.** Gau-Bela taldea Karrapen.

- **23:30.** Gau-Bela taldea Karrapen.
- **Ondoren.** Incansables txaranga-ren musika.

Ilbeltzak 29, asteartea

- **09:30.** Baserrietako eska: Era-sote auzora.
- **11:30.** Txan Magoa Zinen.
- **14:30.** Aurrera elkartean bazkaria.
- **16:30.** Ume eta gaztetxoekin kalejira plazatik Incansables txarangaekin.
- **17:30.** Txokolatada, buru handiak eta Aralar udal musika eskolako fanfarrea plazan. Ondoren goxokiak banatuko dira.
- **18:30.** Garai bateko Atsauren kalejira.
- **19:00.** Gau-Bela taldea Karrapen.
- **23:30.** Gau-Bela taldea Karrapen.
- **Ondoren.** Incansables Txaranga.
- **02:00.** Karaoke eta Atsaure Lehiaketa Atakabeltza Gaztetxean.

Ilbeltzak 30, asteazkena

- **17:00.** Haur eta gaztetxoentzat zuzenduriko zine proiektzioa ikusteko aukera egongo da.

LIZARTZA

Urtarrilak 25, bihar

- **14:15.** Eskolako antolatuta mozorro festa.
- **Ondoren.** Kalejira herriko kaleetan zehar.

Etzi

- **07:00.** Plazan elkartu eta kalejira egingo da dantzari, txantxo eta txistulariek giroa alaituko dutelarik.
- **07:30.** Puske-biltzea: dantzariak eta txantxoak elkarrekin ospeletik.
- **09:30.** Etxe-zahar baserrian geldialdia egingo dute gosaria egiteko.
- **12:00.** Mozorro, galdi eta txarangen irteera egingo da Errota ataritik.
- **13:30.** Inauterietako partaide guztiak kalejira egingo dute, Arrateko zubitik irtenda.
- **Ondoren.** Denek elkarrekin bazkaria egingo dute frontoian.

- **18:00.** Galdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira eta ondoren, kalejira egingo da herrian barrena plazara jeitsiko dira. Bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta Lizartzako talogileak egindako taloak jateko aukera izango da.

Urtarrilak 27, igandea

- **11:00.** Agintari eta dantzariak Meza Nagusira joango dira, txistulariek eskainitako Agintari doinuaz lagundurik.
- **12:00.** Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen; galdi, mozorro eta gainerakoekin batera ibiliko dira.
- **13:00.** Lizartzako Inaute Dantzak eskainiko dituzte herriko plazan.
- **14:00.** Inaute Bazkaria egingo da herriko pilotalekuan.
- **Ondoren.** Txaranga, dultzainero, jokuak, zozketa, sariak, etab. egongo dira.
- **20:30.** Plazan ijitoa erreko dute eta honekin 2008. urteko Lizartzako inauterian amaiera helduko da.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Ibarra.** Antzerkiola Imaginarioak
Kaputen kanta lana eskainiko du Benito Izagirre kultur etxean 19:00etan.

Deialdiak

■ **Altzo.** Candanchura eskiatzera joateko autobusa antolatuta dute, 3 euroren truke. Izena udaletxean eman behar da (943 65 24 13). Otsailaren 10ean joango dira 06:30ean ateraz. Izena emateko azken eguna, otsailaren 1a (ostirala).

■ **Altzo.** Altzoko Udaletxean ENHA tramitatzeko aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errolla agiria behar dira horretarako.

■ **Anoeta.** Etzi egingo den Dantza sokaren azken entseguak bihar izango da Edurka pabilioian 19:00etan.

■ **Berastegi.** Berastegiko Aldin Kultur Elkarteak urtarillaren 26ean, larunbatean, lhauteri Eguneko afaria antolatuta du. Txartelak 20 euro inguru balioko dute eta urtarillaren 22tik aurrera salgai egongo dira Zelai Tabernan eta Urepele Elkartearen.

■ **Ibarra.** Kirol taldeek eta kirolariak urteko ekitaldietarako udal laguntzak eska ditzakete hilaren bukaera bitarte.

■ **Tolosa.** *Tolosa Munduan* ziklorako abonoak salgai daude Kutxanet-en. Apirilean Noa, maiatzean Omar Faurk eta ekainean Alasdair Fraser-Nathalie Haas izango dira zikloak.

■ **Tolosa.** Inauterietako Danborradako entseguak hilaren gaur Kultur Etxean 20:00etan eta hilaren 29an Udal Musika Eskolan 20:00etan.

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandak hilaren 27an eskainiko duen Inauteri kontzertuan parte hartzeko gonbitea egiten die Bandako kide ohiei. Entseguak, asteartean eta ostegunean 20:30ean Udal Musika Eskolan.

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak asteburu honetarako irteera antolatuta du Portaletera mendiko eskia egitera. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.

■ **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako izen-ematea Aranburu Jauregian egin daiteke, asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era.

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak jakinarazi nahi du, astelehenean eta asteazkenean 19:30etatik 21:00etara, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko auke-



Hizkuntzarekin jolasean, mihia astinduz

ASTEASU ■ Kaxkagor elkarteak eta herriko gazteek *Mihiluze* lehiaketa antolatuta zuten atzo arratsaldean, telebistako saio ezagunaren jokoa erabiliz. Kultur Etxean dozena bat gazte elkartu ziren eta galderari erantzuteaz

gain, imintzioak ere egin behar izan zituzten. Arratsaldea ederi igarotzeko aukera izan zuten eta askotan barreari ezin eutsirik egon ziren. Bestetan tentsio batean ere, galderari erantzun zuzena emateko. I. GARCIA

ra izango dela. alpinouzturre@hotmail.com.

■ **Zizurkil.** Izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi dutenek udal bulegoetan egin dezake (Euskara Batzordea, 943 692495).

Hitzaldia

■ **Abaltzisketa.** Lizarrusti parkeak *baserri eremuen biziraupena ezbaian: paisaia, bizimoldea, lana, etorkizuna* eztabaida antolatuta du Abaltzisketan 15:30ean, Kultur Etxean. Milu Castang, Iker Karrera, Jexux Mari Arginarena, Jexux Mari Gorostidi alkatea eta Orkatz Goenaga izango dira.

Zinema

■ **Tolosa.** Michael Winterbottomen *Tristram shandy* filma emango dute zine-klubean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

Erakusketak

■ **Alegia.** Jubilatuen tabernan Ana Jesus Ansorenaren zeramika lanak daude ikusgai hilabete osoan zehar. Alegikoiei buruzko batzuek gain, beste berri batzuk jarri ditu

(Orain ez daude Afrikako emakumeei egindako omenaldienak). Asteartetik igandera bitarte.

■ **Ibarra.** *Europa huruna* erakusketara Benito Izagirre kultur etxean, Uzturpe Ikastolaren Kultur Astearen barruan.

■ **Tolosa.** Malen Urtzelai eta Miriam Orkoien margolarien lanak ikus daitezke Sorron koadro dendan (Korroo kalea).

■ **Tolosa.** Jabier Villarreal Armentarizen *Paralelo 42* argazki montajeen erakusketara Aranburu Jauregian, etzi arte.

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaiza: bizia eta kolorea* pintura erakusketara Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan iritzien erantzunikuniki.

hitza ren eskutik

G PUNTUA
IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007

Finaleko DVDa

Finaleko bertsaldi hautatuak



Hitza ren harpidedunentzako eskaintza berezia **6 €**

Deitu: **902-82 02 01**



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info